

## KALITATE POLITIKA

Zarauzko Informazio eta Harrera Zerbitzuak bere erabiltzaileei eskaintzen dizkien harrera eta informazio turistikoko zerbitzuen kalitatea etengabe hobetzeko bidean aurrerapauso handi bat ematea erabaki du. Honen helburua erabiltzaileen aurreikuspen eta beharrak betetzea da.

Erabaki horrekin bat etorritz, Zarauzko Informazio eta Harrera Zerbitzuak - Udaleko turismo-informazio zerbitzua kudeatu eta garatzeko ardura duen erakundeak- Turismo Bulegoaren kudeaketa optimizatzeko konpromisoa hartu du, Turismo Bulegoetako Q araudia (kalitatea kudeatzeko sistema) aplikatuz.

Konpromiso honela gauzatuko:

- Bulegoaren barne funtzionamendua eta eskaintako zerbitzuaren kalitatea optimizatzeko lan-dinamika abiatuko da. Horretarako beharrezko diren giza baliabideak eta bitarteko teknikoak jarriko dira.
- Bulegoaren kudeaketari aldizkako kalitate-kontrolak egingo zaizkio Q kalitate-marka duen ziurtagiria lortu eta mantentzeko.
- Zerbitzua balioztatzeko galdera-sorta bat jarriko da erabiltzaileen esku, lortutako gogobetetze maila neurtu eta beraien iritzi, iruzkin eta iradokizunak jasotzeko, horien bidez gure eskaintzaren kalitatea hobea izan dadin.
- Etengabe hobetzeko ahalegin honetan langile guztien parte-hartzea sustatuko da.
- Turismo-informazioko sektorearen beharretara etengabe egokitzekeo tresneria eta laguntza sistemak berritu eta zabalduko dira.

